

Koldo Aldalur

KAZETARIA

Azala eta mamia

Badirudi aurtan ere ez dugula futbol selekzioaren partidarik izango gabon buelta honetan. Beno, ez futbol selekzioarena ez beste selekzio batzuen ere. Izen kontua omen zen, eta oraindik izen kontua omen da; hots, “gu” hainbeste eztabaida sortu duen konzeptuaren mugarrak non kokatu behar ditugun bereizteko euskal herritarrok dugun arazotxo hori, eta ondorioz “besteak” nortzuk diren azaltzeko ezintasuna. Baina azalaren azpian mami handia dago. Pentsatzekoa da futbol selekzioak urtean behin jokatzeko duen partida hori urtean zehar egindako bidearen azken geldiunea besterik ez dela, festa egun eder bat nazioartean gero eta indar handiagoa dugula ospatzeko, alegia.

Bestela selekzioaren partida sinbologiaren esparruan galtzen da: azalekoa ez ezik axaleko bilakatzen. Hutsa ez, baina mami handirik gabea bai. Tamarindoak bezala, azal lodia eta barruan ezer gutxi. Itxura.

Munduko Pelota Batzarrak urteetan nazioarteko txapelketa bat antolatu ohi du, gure pelotari gazteek euren maila erakusteko aukera izan dezaten, eta, bide batez, ez dakit ziur zer, baina zerbait bagarela aldarrikatzeko. Txapelketatxo bat, nazioartean gero eta indar handiagoa dugula ospatzeko?

Kasu honetan ere, futbolarekin gertatzen



DANI BLANCO

den bezala, txapelketa honek uzten duen arrastoa laster lehortzen du errealitateak.

Eta errealitatea da abertzaletasunak –horrela, orokorrean, izate bakar eta mugatua bailitzan– erabakiak hartzeko zuen ahalmenaren zati handi bat galdu duela aspaldi honetan, eta beraz, egoera aldatu dela. Ondorioz beldur naiz ez ote duen sinboloetara itzultzea beste irtenbiderik izango. Prozesu logikoena da: sinboloak indartu indargeak garelako ezkutatzeko. Edo, agian, indargeak garelako jakinik sinboloei eutsi nortzuk garen jakiteko. Jakin ezazu!

Euskadiko selekzioak, Euskal Herrikoak, Euskal Herrietakoak, Euskal selekzioak...

Eta, agian, “besteak” egin eta egin dutenari begiratu beharrean, norberak egin duenari begiratzeko garaia ere bada. Euskal selekzioekin urtean behin bakarrik gogoratzen denak ez du besteei kargu hartzeko eskubiderik, halakoa egin duelako, edo zuzen esanda, halakoa eta honokoa egin ez dituelako. Eta ez naiz norbanakoei buruz bakarrik ari. Bakoitzak egin duenari begiratzeko balio, besteei zer egin duten galdetu aurretik, agian, beste egoera batean geundeko.

Mamia, beti bezala, herriaren nahia da. Beno, nahia eta lanerako gogoia. Gainontzeko guztia gure ezinaren ondorioa besterik ez da. **n**

«
Errealitatea da abertzaletasunak
erabakiak hartzeko zuen
ahalmenaren zati handi bat
galdu duela aspaldi honetan,
eta beraz, egoera aldatu dela
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Javier, *El rubio de Baracaldo*. Eskuindar ezkertia mozolo batek zelaietako berdeetatik alborarazi zuena. Artista ezker oinez, artesano batek hautsi zuen. Futbola zuen

ipar, Espainiako RFEF Villarrek, bereziki kolorea eman ziona, bere burua ego eta Euskal Herria mendebal. Euskal Selektzioak jokatu behar ez duen patxanga dela eta, “lehen eta bigarren mailakoek jokatu nahi ez badute, hirugarrenekoek jokatu dezatela” esan du, betiere bere gomutak aieratzen maisu. Handik eta hemendik kanporatuak, mila aldiz errepikatu hura, ahulenak ordaintzen duela betiere denon erronda ale-

Clemente

gia erabili du, bertsolari txapelketan bere iritzi orriak zabaltzen ikusi ditugun jokalaririk arduratsuen aurka. Aurki,

FVF horretan izango du bere saria. Bere txikian futbolak jende hanpatuaren artera eramandakoak, greba baten garaian edozein nagusiren ordekoak egin izan duen joko ustela bururaino eramateko prest agertu zaigu, enperadore usteko mozolo alena. Bere oinpeko jokalarien estimuaz harro agertzea maite zuenak, oraingo honetan belarria baino gehiago erakutsi digu, lotsa eta duintasuna ezagutu gabe ere, jende taldeak beregana zitzakeela posible dela baieztatuz. Saxofoia jotzen duen bezala hitz egiten du. **n**